

*Guztion Nafarroan, guztion ikurrak!*

Por una ley de símbolos democrática

**INICIATIVA LEGISLATIVA POPULAR**

Las personas que firmamos este documento, en representación de todo el Grupo Promotor, queremos comunicar al Parlamento de Navarra nuestra voluntad de impulsar una Iniciativa Legislativa Popular.

Nos mueve un objetivo muy claro y concreto: conseguir la adhesión popular suficiente para que sea aprobada una *“Proposición de Ley Foral para el respeto a la pluralidad y a la decisión democrática de la ciudadanía en el uso de los símbolos de Navarra”*.

Por ello, y sabedores de que para activar el proceso es necesario el visto bueno de la Mesa del Parlamento de Navarra, ponemos en su conocimiento el presente documento para que lo analice, lo tenga en consideración y posibilite su puesta en marcha.

---

## **ARGUMENTOS QUE JUSTIFICAN LA NECESIDAD DE TRAMITAR ESTA PROPOSICIÓN DE LEY**

---

- Que Navarra es una comunidad plural es una realidad que casi nadie niega. En el amplio espacio que se extiende desde el Bidasoa hasta el Ebro convivimos mujeres y hombres de diferentes procedencias, razas, ideologías y creencias; lo que hace que la pluralidad sea una característica fundamental de la vida social, política y cultural de Navarra, también en lo relativo a las identidades nacionales y los símbolos que la representan.
- Los símbolos, en particular las banderas y los escudos, representan la personalidad propia de un pueblo, su unidad, su espíritu solidario, su corazón. Cuando estos símbolos son reconocidos y aceptados por amplios sectores sociales adquieren un evidente valor civil, en la medida que ayudan a la cohesión interna de grupos sociales plurales. Ayudan a entender la identidad como un concepto más abierto y positivo.
- Cuando se prohíbe el uso de símbolos que la ciudadanía siente como propios y cuando se imponen otros que suscitan amplio rechazo social sucede lo contrario; que la pluralidad que debiera ser fuente de enriquecimiento deriva en una convivencia problemática y conflictiva. Precisamente por eso, carece de sentido tanto el imponer a la ciudadanía el uso de símbolos que siente como extraños como el pretender prohibir el uso de otros que son democráticos. En una sociedad que se reclama plural y democrática no debiera haber lugar para estas situaciones.
- Por desgracia, desde que entró en vigor la Ley Foral 24/2003 (conocida como la Ley de Símbolos), un símbolo que una parte importante de la sociedad navarra reconoce como suyo, la ikurriña, está siendo perseguida de forma sistemática. Es tratada como si fuera una bandera extranjera; se la ha hecho desaparecer de insituciones que de forma democrática han decidido exhibirla; hasta el punto de que se ha amenazado con castigos graves a cargos electos que han pretendido hacer respetar la voluntad democrática de sus vecinas y vecinos.
- En la práctica, en decenas de municipios de Navarra, la voluntad democrática en lo relativo al uso de la simbología está siendo anulada y, además, en los últimos años amplios sectores sociales están siendo golpeados por la policía y perseguidos judicialmente solamente por pretender exhibir de forma pacífica la ikurriña durante las fiestas.
- Entendemos que ha llegado el momento para poner en vías de solución esta situación irracional. Ha llegado el momento de dar un firme paso adelante hacia la pluralidad, la tolerancia y la democracia. Ha llegado el momento de que se respeten los derechos de toda la ciudadanía también en materia de símbolos. Ha llegado el momento de abrir cauces democráticos a la pluralidad y a la libre expresión de la ciudadanía.
- En primer lugar, es necesario poner fin a la conculcación de derechos vigente hoy en día levantando la prohibición de exhibir la ikurriña; y, en segundo lugar, procede abrir las

puertas de par en par a un amplio y plural debate social que posibilite la articulación de amplios consensos sociales en torno a las garantías para el respeto de todos los derechos para todas las personas. La Iniciativa Legislativa Popular que queremos promover pretende ser una propuesta constructiva en el camino hacia ese objetivo.

## PROPOSICIÓN DE LEY FORAL PARA EL RESPETO A LA PLURALIDAD Y A LA DECISIÓN DEMOCRÁTICA DE LA CIUDADANÍA EN EL USO DE LOS SÍMBOLOS DE NAVARRA

### PREÁMBULO

---

Que Navarra es una tierra plural y diversa es una verdad incuestionable. En este vasto territorio que va desde el Bidasoa hasta el Ebro conviven ciudadanas y ciudadanos de muy diversos orígenes, razas, creencias y pensamientos, algo que extiende la pluralidad a todos los ámbitos de la vida social, política y cultural; también al ámbito de los sentimientos nacionales y los símbolos.

Los símbolos, sobre todo las banderas y los escudos, representan la identidad, unidad, solidaridad y corazón de un pueblo, y cuando son ampliamente aceptados por la ciudadanía, adquieren un valor civil incuestionable: ayudan a hacer del pueblo un grupo de gente diversa pero con fuertes lazos internos; y ayudan también a hacer de la identidad un concepto positivo y abierto.

Si por el contrario se prohíben los símbolos que la ciudadanía ha hecho suyos o se imponen unos que se sienten ajenos ocurre lo contrario: aquello que podría ser fuente de riqueza se convierte en algo conflictivo y la convivencia degenera. Por ello precisamente resulta carente de todo sentido pretender imponer a la ciudadanía símbolos ajenos o prohibirle aquellos que son plenamente democráticos. En una sociedad democrática no debieran permitirse cosas así.

Por desgracia es justo eso lo que ha ocurrido con la ley foral 24/2003 (conocida como ley de símbolos). Su entrada en vigor supuso el retorno a la persecución de la ikurriña en nuestra tierra; la vuelta a la persecución de un símbolo democrático que hacen suyo miles de navarros y navarras. Así, como si de una bandera extranjera se tratara, su retirada ha sido impuesta en distintos ayuntamientos donde contaba con un apoyo muy mayoritario, habiendo sido sus alcaldes amenazados con fuertes sanciones en caso de no proceder a su retirada. Ello significa que en distintos pueblos de esta comunidad la voluntad ciudadana en torno a la utilización de símbolos ha sido anulada; algo que a todas luces resulta gravísimo.

Las leyes no debieran ser herramientas para pisotear o restringir derechos, sino para ampliarlos y garantizarlos. Precisamente a ello viene la presente ley: a solucionar la injusta situación actual; a dar un paso firme a favor de la tolerancia, la pluralidad y la democracia; a hacer respetar los derechos de toda la ciudadanía en el ámbito de los símbolos; a dar cauce a lo que la ciudadanía libre y democráticamente ha decidido o a lo que pudiera decidir.

Profundizar en la democracia y en la garantía de derechos hará la sociedad navarra más justa.

## **TEXTO ARTICULADO:**

---

### **Artículo 1: Utilización de la bandera de Navarra**

1. La Comunidad Foral de Navarra promueve que su bandera oficial sea utilizada y mostrada, ya que es símbolo tanto de la unidad de esta comunidad como de la solidaridad de su ciudadanía con la del resto del mundo.
2. El hecho de utilizar públicamente la bandera de Navarra en los edificios y sedes administrativas no puede impedir, en ningún caso, que junto a ella se coloquen cualesquiera otras banderas, y mucho menos si estas cuentan con amplio respaldo popular.
3. Si así lo reclama la ciudadanía, las instituciones públicas promoverán consultas populares con el fin de conocer la opinión de la misma a cerca de la utilización de símbolos.

### **Disposición derogatoria única.**

Quedan derogadas la Ley Foral de Símbolos 24/2003 y todas aquellas disposiciones normativas de igual o inferior rango que contradigan la presente ley.

### **Disposición transitoria primera.**

El Parlamento de Navarra, en el marco de sus competencias, promoverá un debate democrático y participativo junto con agentes sociales y ciudadanía, a fin de regular íntegramente el uso de los símbolos de Navarra de forma ampliamente consensuada.

### **Disposición transitoria segunda. Retirada de simbología franquista.**

En el plazo de un año desde la entrada en vigor de la presente Ley Foral, las autoridades en ella referidas procederán a la retirada y sustitución de toda la simbología propia del régimen franquista. Aquellos símbolos que se encuentren integrados en edificios declarados de carácter histórico-artístico serán sustituidos y enviados a la Institución Príncipe de Viana.

### **Disposición final primera. Desarrollo reglamentario.**

Se autoriza al Gobierno de Navarra a dictar las disposiciones normativas necesarias para llevar adelante, desarrollar y hacer cumplir lo mencionado en la presente ley.

### **Disposición final segunda. Entrada en vigor.**

Esta ley foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

*Guztion Nafarroan, guztion ikurrak!*  
Por una ley de símbolos democrática  
**HERRI EKIMEN LEGEGILEA**

Txosten honen bidez behean sinatzen dugunok, talde eragile osoaren izenean, herri ekimen legegile bat martxan jartzeko asmoa dugula adierazten diogu Nafarroa garaiko Parlamentuko Mahaiari.

Helburu argi eta zehatza daukagu: *"Nafarroako ikurren erabileran herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasunarekiko errespetua bermatzeko Foru lege proposamena"* onartua izan dadin beharrezko babesak lortzea.

Horregatik, eta jakinik prozesu guztia abiatzeko Parlamentuko Mahaiaren oniritzia beharrezkoa dela, txosten hau bere esku uzten dugu, aintzat hartu, aztertu, onartu eta bide eman diezaion.

## LEGE PROPOSAMEN HAU TRAMITATUA ETA ONARTUA IZATEKO ARRAZOTIAK

---

- Nafarroa garaia herrialde anitza dela inork gutxi ukatzen duen egitatea da. Bidasoatik hasi eta Ebroraino zabaltzen den lur eremu zabal honetan jatorri, arraza, sinesmen eta pentsaera askotariko herritarrak bizi dira, horrek aniztasuna bizitza sozial, politiko eta kulturaleko eremu guztietara zabaltzen duelarik, baita sentimendu nazionalen eta sinboloen eremuetara ere.
- Sinboloek, batik bat banderek eta armarriek, herri baten nortasuna, batasuna, elkartasuna eta bihotza adierazten dute, eta jendartean era zabalean onetsiak eta onartuak direnean, balio zibil nabaria bereganatzen dute: herria jende talde anitz baina barren loturadun bihurtzen laguntzen dute; bere nortasuna kontzeptu positibo eta irekitzat hartzen laguntzen dute.
- Herritarrek bere egiten dituzten ikurrak debekatu edota bere egiten ez dituztenak inposatzen direnean aldiz kontrakoa gertatzen da: aberastasun iturri izan zitekeen hori gatazkatsu bilakatzen da eta elkarbizitzak okerrera egiten du. Horregatik hain zuzen, erabat zentzugabekoa da herritarrei sinbolo arrotzak inposatu edota demokratikoak direnak debekatu nahi izatea. Jendarte anitz eta demokratiko batean ez litzateke holakorik onartu beharko.
- Tamalez, 24/2003 Foru legea indarrean jarri zenetik (*Sinboloen Foru legea* deiturikoa alegia), nafar jendartearen eremu zabal batek bere egiten duen sinbolo bat, ikurrina, sistematikoki jazarria izan da. Bandera atzerritarra bailitzan, babes zabala duen herrietako instituzioetatik desagerrarazia izan da, herri borondatea mantendu nahi zuten hautetsiei zigor gogorrekin mehatxatu zaielarik.
- Praktikan, Nafarroa garaiko hamarnaka herritan, herritarrek ikurren inguruan adierazitako borondate demokratikoa deuseztatua izan da; eta hori gutxi balitz gainera, jaien testuinguruan ikurrinaren erabilera baketsua egiten zuten herritar multzo zabalak poliziek kolpatuak eta epaileek jazarriak izan dira azken urtetan.
- Bada garaia beraz egoera bidegabe hau konponbidean jartzeko. Bada garaia tolerantziaren, aniztasunaren eta demokrazia sakon baten alde urrats sendo bat emateko. Bada garaia ikurren eremuan ere herritar guztien eskubideak errespetatzeko. Bada garaia aniztasunari eta herritarrek libre eta demokratikoki adierazitakoari bide emateko.
- Horretarako lehenik, egun indarrean dagoen eskubide urraketari amaiera eman beharko zaio indarrean dagoen debekua altxatuz; eta bigarrenik, eztabaida sozial anitza sustatu beharko da, elkarrizketaren eta adostasunaren bidetik eskubideen bermerako adostasun zabalak lortzeko. Herri ekimen legegile hau beraz helburu horiei guztiei erantzun positibo eta eraikitzailea eman nahi asmoz sustatzen da.

## NAFARROAKO IKURREN ERABILERAN HERRITARREN ERABAKI DEMOKRATIKOA ETA ANIZTASUNAREKIKO ERRESPECTUA BERMATZEKO FORU LEGE PROPOSAMENA

### ATARIKOA

---

Nafarroa garaia herrialde anitza dela inork gutxi ukatzen duen egitatea da. Bidasoatik hasita Ebroraino zabaltzen den lur eremu zabal honetan jatorri, arraza, sinesmen eta pentsaera askotariko herritarrak bizi dira, horrek aniztasuna bizitza sozial, politiko eta kultureko eremu guztietara zabaltzen duelarik, baita sentimendu nazionalen eta sinboloen eremuetara ere.

Sinboloek, batik bat banderek eta armarriek, herri baten nortasuna, batasuna, elkartasuna eta bihotza adierazten dute, eta jendartean era zabalean onetsiak eta onartuak direnean, balio zibil nabaria bereganatzen dute: herria jende-talde anitz baina barren loturadun bihurtzen laguntzen dute; bere nortasuna kontzeptu positibo eta irekitzat hartzen laguntzen dute.

Herritarrek bere egiten dituzten ikurrak debekatu edota bere egiten ez dituztenak inposatzen direnean aldiz, kontrakoa gertatzen da: aberastasun iturri izan zitekeen hori gatazkatsu bilakatzen da eta elkarbizitzak okerrera egiten du. Horregatik hain zuzen, erabat zentzugabekoa da herritarrei sinboloak arrotzak inposatu edota demokratikoak direnak debekatu nahi izatea. Jendarte anitz eta demokratiko batean ez litzateke holakorik onartu beharko.

Tamalez, 24/2003 Foru legea indarrean jarri zenetik (*Sinboloen Foru legea* deiturikoa alegia), nafar jendartearen eremu zabal batek bere egiten duen sinbolo bat, ikurrina, sistematikoki jazarria izan da. Bandera atzerritarra bailitzan, babes zabala duen herrietako instituzioetatik desagertarazia izan da, herri borondatea mantendu nahi zuten hautetsiei zigor gogorrekin mehatxatu zaielarik. Guzti honek ondorio garbia izan du: Nafarroa garaiko hamarnaka herritan herritarrek ikurren inguruan adierazitako borondate demokratikoa deuseztatua izan da. Edozein ikuspuntutik begiratuta, gertakari larria oso.

Legeek ez lukete herritarren eskubideak murriztu edo zanpatzeko tresna izan behar, eskubide horiek zabalduta eta bermatzeko tresna baizik. Eta hain zuzen ere hartara dator lege hau: egungo egoera bidegabea konponbidean jartzera; tolerantziaren, aniztasunaren eta benetako demokraziaren alde urrats sendo bat ematera; ikurren eremuan herritar guztien eskubideak errespetaraztera; herritarrek libre eta demokratikoki erabakitakoari edo erabakiko dutenari bide ematera.

Demokrazian eta eskubideen bermean sakontzeak nafar jendartea bidezkoago egingo du.



## **TESTU ARTIKULATUA:**

---

### **1. artikulua. *Nafarroako banderaren erabilera.***

1. Nafarroako Foru Komunitateak bere bandera ofiziala erabil, zabal eta erakuts dadin sustatu nahi du, Nafarroaren nortasunaren eta Foru Komunitatearen batasunaren adierazgarri baita, eta bertan bizi direnen arteko eta munduko gainerako herritarrekiko elkartasun ikur.

2. Eraikuntza edo egoitza administratiboetan Nafarroako bandera bereizgarri gisa publikoki erabiltzeak ezin du inolaz ere ekidin haren ondoan aldi berean besterik jartzea, are gutxiago horrek herritarren babes zabala duen hiri edo udalerrietan.

3. Herritarrek hala eskatzen badute, instituzio publikoek herri-kontsultak sustatuko dituzte sinboloen gainean herritarrek duten iritzia ezagutzeko.

### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra.**

Indarrik gabe gelditzen dira 2003ko apirilaren 4ko 24/2003 Ikurren Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten lerrun bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

### **Lehen xedapen iragankorra.**

Nafar Parlamentuak, bere eskuduntzen barruan, eztabaida demokratiko eta parte-hartzailea sustatuko du herri eragileekin eta herritarrekin batera, sinboloen erabilera osoki arautzeko lege berri bat adostasun zabalaz onartua izan dadin.

### **Bigarren xedapen iragankorra. *Sinbolo frankistak kentzea.***

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bertan aipatutako agintariek Francoren erregimenaren sinbologia kendu eta ordeztu egingen dute. Eraikin historiko artistiko deklaraturikoetan dauden sinboloak kendu eta Vianako Printzea Erakundera bidaliko dira, haren zaintzapean uzteko, kentzea ezinezkoa denean salbu.

### **Azken Xedapenetan Lehena. *Erregelamendu bidezko garapena.***

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan ezarritakoa aurrera eraman, garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapenak agindu ditzan.

### **Azken Xedapenetan Bigarrena. *Indarra hartzea.***

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.